



IRUÑEKO UDALEKO HAUR ESKOLETAN 2026-2027 IKASTURTEAN BETE BEHARREKO LAN-KONTRATUAK AUKERATZEKO ESKAINTZA BATERATUAN PARTE HARTZEKO JARRAIBIDEAK

Kontratuen aukeraketa **ABUZTUAREN 7AN (OSTIRALA), 09:30etan** izango da, **Salesianas aretoa (Cuenca de Pamplona kalea 24, Txantrea)**.

Eskaintza honetan eskainiko diren kontratuen zerrenda Organismoaren webgunean argitaratuko da **abuztuaren 4an edo 5ean**.

GARRANTZITSUA: Deialdi hau jasotzeak ez du esan nahi kontratu bat esleituko zaizunik. Izan ere, eskainiko diren kontratuak baino pertsona gehiago deitzen dira, deitutako guztiak ez baitira aukeraketa-ekitaldira bertaraten.

Ekitaldira etorriko ez bazara edo zerrendatik aldi baterako baja hartu nahi baduzu, jakinarazi, mesedez, lehenbailehen, mezu honi bertan erantzunez: empleoeeii@pamplona.es

Honako hau gogorarazten dizugu:

1. Eskaintza bateratura joaten ez bazara eta arrazoiak behar bezala justifikatzen ez baduzu, jatorrizko zerrendako azken postura igaroko zara, zerrendak indarrean dauden bitartean. Egoera hori bigarren aldiz gertatzen bada, zerrendetatik kanpo geratuko zara.
2. Arrazoi pertsonalengatik aldi baterako baja hartu nahi baduzu, posta elektronikoz eskatu beharko duzu, eskainiko diren plazak argitaratu aurretik. Baja horrek gutxienez **6 hilabeteko** iraupena izango du.
3. Gure haur eskoletako deialdiak arautzen dituzten irizpideak Organismoaren webgunean daude kontsultarako.

Ekitaldira bertaratu ezin baduzu, kontratuaren aukeraketa beste pertsona baten esku utzi ahal izango duzu. Horretarako, **baimen-agiri bat aurkeztu beharko da, titularraren NANaren fotokopiarekin eta baimendutako pertsonaren NANaren fotokopiarekin batera.**